

2017ko **URRIA** **BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari buruzko
aldizkako azterketa



Fundación

IBERDROLA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



PAZ | CPA

DEPARTAMENTO DE
CIENCIA POLÍTICA
Y DE LA ADMINISTRACIÓN

POLITIKA ETA
ADMINISTRAZIO ZIENTZIEN BAZA

AURKEZPENA

EUSKOBAROMETRO (www.ehu.es/euskobarometro) izeneko ikertaldeak UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Sailaren barnean dihardu, **Francisco José Llera Ramo** irakaslearen zuzendaritzapean. Irakasle eta ikerlari talde egonkor batek osatzen du: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M. Mata, Juantxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Taldekide ere izan dira edo taldean trebatu dira: Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Ikertaldearen proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzi publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEA**ren jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzi barometroaren inkestak segidak izandako oihartzuna eta azterketa ugariak. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua duen talde bat dela esan genezake; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: www.ehu.es/euskobarometro.

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabetean behin eginiko Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratutako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskain dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOAK** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestak emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean. Emaitzetan, datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldiro. Euskal hauteskunde autonomikoen inguruan eginiko aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldiaren behin, analisi enpirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.
- 5) Euskobarometro taldeak eginiko lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikei buruzko ikerke-

tak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETAK** atalean.

- 6) la hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari** buruzko ikerketa argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak aldeztu aurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIA (IGEB)** estekan.
- 8) Europan euroa indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu. Horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzeko beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegien zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldi behin zabaltzen diren. PABek webgune (www.opa151.com) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gainera, azken urteotan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Estatu Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazionala** aipatutako erakundeak argitaratu zuen, 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **Espainiarrak eta terrorismoaren biktimak** izeneko azterlan aitzindaria. **Estatu lehen inkesta** hura CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas”** izeneko estatu mailako **II. inkesta** argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko **III., IV. eta V. inkestak**, 2006an, 2007an eta 2008an, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Politika Zientzia Saileko
EUSKOBAROMETRO ikertaldeak, ondoren bildu
diren iruzkin eta datuen bidez, 2017ko urrian eginiko
udazkeneko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten
ditu.*

*Informazio hau gure webgunean kontsultatu eta
sakondu daiteke:*

www.ehu.eus/euskobarometro

Aurkibidea

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA PERTSONALA, KEZKAK, GIZARTE ETA EKONOMIA EGOERA, IGURIKAPENAK, DEMOKRAZIAREN ONDOEZA, BABESA KONSTITUZIONARI ETA ERAKUNDEENGANAKO KONFIANTZA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA EGOERA ETA EBALUAZIOA, HIZKUNTZA POLITIKA, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	21
IV.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA IDENTITATEA, ESTATU EREDUA, AUTOGOBERNUA, BABESA ESTATUTUARI ETA INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK	35
V.	KATALUNIako PROZESU INDEPENDENTISTA	49
VI.	ETAren IBILBIDEAREN ETA HAREN KIDEEN EBALUAZIOA ETA PRESOEN ETORKIZUNA	57

I. go Atala

2017ko URRIKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHUko Politika Zientzia Saileko *EUSKOBAROMETRO* taldea, **Francisco J. Llera Ramo** irakaslea zuzendari duena. **José M. Mata** eta **Carmelo Moreno** irakasleak aritu dira taldean, **Rafael Leonisio**ren laguntza teknikoaz.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, etxez etxe eginikoak, galdetegi egituratu bidez 2017ko urriaren 24tik azaroaren 12ra bitartean **CPS**ren landa sarea erabilia eginikoak.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginaren tamaina: Etezez etxe eginiko 600 inkesta.

Laginaren diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT** metodologiaren arabera, 21 udalerritako (2 Araban, 9 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan) 30 errolda sekzioetan eginikoa. Banakoak ausaz hautatuak, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginaren errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekatzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako \pm % 4,08 izan da.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, lurralde, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira laginak, **EUSTATEk** 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta eginiko zozketatik abiatuta. Gainera, sekzioak hautatzeko, 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

II. Atala

Gehiengoak positiboki baloratu du bere egoera pertsonala 2017an, eta krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratzen ari da.

Ezkortasuna eta mesfidantza batik bat Espainiako ekonomiarekiko. Haatik, hobe da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

Atzera egin du berriro ekonomia krisiaren eraginak sentitzen dituen gehiengo nagusiak.

Hobera egin dute Euskadiren etorkizunari buruzko igurikapenak.

LANAK izaten jarraitzen du kezka nagusi, baina beherantz jarraitzen du.

Atzera egin du politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduaren hobekuntzak, sektore guztietan.

Demokrazia sistema honek gogobetetzen ez duen gehiengo mantentzen da.

Espainiako Konstituzioaren aurkako jarrera indartu da, aldekoari nagusituta.

Soilik GKEek, mugimendu zibikoek eta Eusko Jaurlaritzak lortu dute berriro azterketa gainditzea, aurrekaririk ez duen mesfidantza instituzional batean.

GEHIENGOAK POSITIBOKI BALORATU DU BERE EGOERA PERTSONALA 2017an, ETA KRISIAREN AURREKO GOGO ALDARTEA BERRESKURATZEN ARI DA

Hiru euskaldunetarik bik (% 66) uste dute 2017. urtea ona izan dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 13) edo jarrera eszeptikoa dute (% 21). Azken bi urteetan, egonkortu egin dira 2015. urte amaieran egiaztatu zen baikortasunaren berreskurapen argia (+12 puntu) eta ezkortasunaren atzerakada korrelatiboa (-8 puntu). Orduan esan genuen bezala, bilakaera honek erakusten digu ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratzen ari dela pixkanaka (ikus 1. grafikoa).

EZKORTASUNA ETA MESFIDANTZA BATIK BAT ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO. HAATIK, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN GAINKO PERTZEPZIOAREN BILAKAERA

Azken seihileko honetan, azken bi urteetan izandako atzerakada nabarmenaren ondoren (-28 puntu), atzera egin du berriro Espainiako egoera ekonomikoaren inguruko gehiengoaren ezkortasunak (% 59), aldi berean baikorren multzoaren gorakadarik gabe (% 4). Eszeptikoen taldea handitzea eragiten du horrek (% 36). Bestetik, euskal ekonomiaren bilakaerari dagokionez, duela bost seihileko hasi zen hobekuntzari jarraiki, baikorrak (% 30) ezkorrak (% 22) baino gehiago dira lehen aldiz, eszeptizismoak nagusi izaten jarraitzen badu ere (% 48) ---ikus 2. grafikoa---

ATZERA EGIN DU BERRIRO EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK SENTITZEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIAK

Oraindik hamarretik zortzi baino zerbait gutxiago badira ere (% 78) krisiaren eraginak sentitzen dituztela diotenak eta bostik bi inguru izaten jarraitzen badute ere (% 39) biziago sentitzen dituztenak, baieztatu egin da bi adierazleetan duela urtebete detektatu zen urtetik urterako atzerakada geldoa (-5 puntu) ---ikus 3. grafikoa---

HOBERA EGIN DUTE EUSKADIREN ETORKIZUNARI BURUZKO IGURIKAPENEK

Krisi sakon eta luze baten ondoren, ekonomia eta gizarte egoeraren hobekuntza ezaugarri duen giro batean, indartsu nagusitzen da EAEn etorkizunari buruzko baikortasuna (% 48), datorren hamarkadari begira (+18 puntu azken urtean), nahiz eta ia herenek (% 31) eszeptikoak izaten jarraitzen duten, eta gutxiengo batek (% 14), pesimista (ikus 4. grafikoa).

LANAK IZATEN JARRAITZEN DU KEZKA NAGUSI, BAINA BEHERANTZ JARRAITZEN DU

Lanak sortzen duen kezkak (% 49) lehen postuan jarraitzen badu ere, nabarmen egin du behera azken bi urteetan (-21 puntu). Askoz beherago dago "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" epigrafean bildu dugun arazo multzoa (% 18), nahiz eta urte-

tik urterako egoera esanguratsu bat izan den (+9 puntu). Hirugarren lekuan egoera politikoa ez dago kezka dago (% 17), egoera nabarmen batekin ere bai (+5 puntu azken sei hilekoan). Ondoren, egoera ekonomikoa aipatzen da (% 8), sei puntu atzera egin ondoren azken sei hilekoetan. Dezente atzerago kokatzen dira etxebizitza (% 1), eta indarkeria, bakea, presoak edo euskal arazoa (% 1). Azkenik, oso gutxi aipatzen dira ere ingurumena, immigrazioa eta bestelako gaiak (ikus 5. grafikoa).

ATZERA EGIN DU POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUAREN HOBEKUNTZAK, SEKTORE GUZTIETAN

Azken lau urteotan adierazle honek izan dituen aldaketa positiboen ondoren, eta nahiz eta gorabehera txiki batzuk izan, atzera egin du pitin bat (-7 puntu) aurreko urtean edonorekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimendua izan zuen hobekuntzak. Nolanahi ere, gehiengo batek partekatzen du berriro (% 51). Gainera, sendotu egin da pertsona batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela dioten gutxiengo (% 38) eta inorekin hitz egiteko gai ez direla diotenena (% 11). Jada ez da desberdintasun nabarmenik ikusten sektore ideologiko edo identitarioen artean (ikus 6. grafikoa).

DEMOKRAZIA SISTEMA HONEK GOGOBETZETZEN EZ DUEN GEHIENGOA MANTENTZEN DA, ETA BAT DATOZ HORRETAN IA HAUTESLERIA GUZTIAK

Egonkorta egin da gure sistema demokratikoaren funtzionamendua gogobetetzen ez dituen herritarren gehiengo (% 80), eta gogobetetzen dituen gutxiengo (% 18). Espainiako eta EBko batez bestekoaren azpitik jarraitzen dugu. Berriro ere, gustura ez dauden artean abertzaleak (% 85) nahiz ez-abertzaleak (% 75) daude, eta gai honetan hurbil daude bi taldeen pertzepzioak. Ia hautesleria guztiak partekatzen dute sentimendu hau (PPren % 50etik EHBren % 94ra) ---ikus 7. grafikoa---


ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN AURKAKO JARRERA INDARTU DA, ALDEKOARI NAGUSITUTA

Gaur egun Konstituzioari buruzko erreferenduma egingo balitz, indartu egingo litzateke EZEZKOA (+6 puntu), eta berriro irabaziko luke (% 37). BAIEZKOA (% 25) atzera egingo luke duela urte bateko egoerara. Aldeko jarrerak babes handiagoa badu ere erlatiboki ez-abertzaleen artean (% 36), baiezkoaren alde egingo luke ere beren burua abertzaletzat duten bost herritarretatik batek (% 16). Bestetik, gehiuntza nabarmena du duela hogeita hamar urteko ezezeko botoak (+12 puntu azken sei hilekoan) abertzaleen artean (% 54). Aurreko hauteskunde autonomikoen hautesleriei erreparatua, baiezkoaren aldekoak dira popularrak (% 80), C's-en boto emaitzak (% 50) eta sozialistak (% 46); aldiz, ezezkoa soilik da nagusi EHBren (% 66) eta Elkarrekin Podemosen (% 49) boto emaitzen artean. PNVren hautesleria askoz zatiago dago (ikus 8. grafikoa).

SOILIK GKEek, MUGIMENDU ZIBIKOEK ETA EUSKO JAURLARITZAK LORTU DUTE BERRIRO AZTERKETA GAINDITZEA, AURREKARIRIK EZ DUEN MESFIDANTZA INSTITUZIONAL BATEAN


Aurrekaririk ez duen mesfidantza giro batean eta urtetik urterako egonkortasun handi batekin, EAEn konfiantza handiena sortzen duten erakundeak GKEak (5,6), azken urteotako protesta mugimenduak (5,6) eta Eusko Jaurlaritza (5) dira. Konfiantza eskalan azterketa gainditzea lortzen duten bakarrak dira, 0-10 puntuen arteko balorazioan. 4tik gora, 5era ozta-ozta iritsi gabe gelditu dira: Eusko Legebiltzarra (4,9), Foru Aldundiak (4,8), Ertzaintza (4,6) eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (4,3) (% 50etik gorako onarpen indizea lortzen duten bakarrak dira). Atzerago kokatzen dira, hurrenez hurren: hedabideak eta Europar Batasuna (4), sindikatuak, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila (3,1), enpresa erakundeak (2,8), Erregea, alderdi politikoak, NATO eta Indar Armatuak (2,7), Justizia Administrazioa, Eliza, Konstituzio Auzitegia eta Diputatuen Kongresua (2,5), Espainiako Gobernuak eta Senatua (1,9) ---ikus 9. grafikoa---

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993 - 2017




2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

ESPAINAKOAKO




EUSKADIKOAKO




3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA

Araba= 17% (-5)
Gipuzkoa= 26% (+8)
Bizkaia= 19% (+4)




Araba= 42% (+5)
Gipuzkoa= 38% (-2)
Bizkaia= 40% (-8)


4. Grafikoa: EUSKADIKO ETORKIZUNARI BURUZKO ITXAROPENA




5. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTASUNAREN BATURA)




6. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA



7. Grafikoa: GOGOBEHETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO




8. Grafikoa: 8. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUIZIARIRI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1978 ETA 2017 ARTEAN*



* Bilakaera sektorialak oraingo bozadari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2017ko Maiatza)

9. Grafikoa: ERAKUNDE NAGUSIEN BALORAZIOA ETA HAIENGANAKO KONFIANTZA



(%) Gaituta ematen duten elkarrizketatuen proportzioa / (%) Ez gaituta ematen duten elkarrizketatuen proportzioa



III. Atala

Politikarekiko interesik eza eta desafekzioa dira nagusi, nahiz eta beheranzko joerarekin.

Espainiako egoerari buruzko ezkortasuna goi-goian dago berriro; aldiz, hobetzen jarraitzen du euskal politikari buruzko balorazioak, eszeptizismoa nagusi den arren.

Egonkortu egin da politika eta gizarte tentsio giroaren bilakaera positiboa.

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak azterketa gainditzea lortu dute, nahiz eta duela urtebete baino zazpi hamarren gutxiagorekin.

Gehiengoa ados dago hizkuntza normalizaziorako politikarekin.

Euskal gizartea euskaren ikaskuntza eta erabilera sustatuko dituen hizkuntz politika baten alde dago, inposiziorik eta presarik gabe, eta malgutasunez jokatzuz sektore publikoan.

Soilik PNVK lortu du saldo positiboari eustea euskal alderdiei buruzko balorazioan, berriro ere atzera egin badu ere. Elkarrekin Podemos da atzera gehien egin duena eta bere boto emailen balorazio txikiena lortu duena.

Denbora askoan lehen aldiz, buruzagi politiko bakar batek ere ez du azterketa gainditu.

POLITIKAREKIKO INTERESIK EZA ETA DESAFEKZIOA DIRA NAGUSI, NAHIZ ETA BEHERANZKO JOERAREKIN

Zalantzarik gabe, demokrazia sistema honekiko haserrea eta ezkortasun politikoa estu lotuta daude gizartean nagusi den desafekzio politikoarekin. Izan ere, euskal iritzi publikoaren zati oso handi batek, bi urte igaro ondoren, politikarekiko urruntze sentimendu bat –sentimendu negatibo bat, zenbaiten kasuan– adierazten jarraitzen du oraindik. Soilik gutxiengo batek (% 18) ---duela urtebete baino 4 puntu gehiago--- adierazten du erabateko poztasuna (% 1), konpromisoa (% 5) edo, besterik gabe, interesa (% 12). Aldiz, gehiengo handi batek (% 81) adierazten dituen sentimenduen artean nagusi dira: axolagabetasuna (% 13), asperdura (% 17), mesfidantza (% 38) eta haserrea (% 14); guztiz negatiboak diren azken hiru horiek dira nagusi (% 69), nahiz eta beheranzko joera batekin (-6 puntu) ---ikus 10. grafikoa---

ESPAINIAKO EGOERARI BURUZKO EZKORTASUNA GOI-GOIAN DAGO BERRIRO. ALDIZ, HOBETZEN JARRAITZEN DU EUSKAL POLITIKARI BURUZKO BALORAZIOAK, ESZEPTIZISMOA NAGUSI DEN ARREN

Espainiako egoera politikoa sortzen duen ezkortasunak ia erabatekoa izaten jarraitzen du (% 81), nahiz eta behera egin duen zazpi puntu duela urtebete ezarri zen markatik. Ia ez dago optimistarik (% 2), eta ia hamarretik bat eszeptikoa da (% 15). Aitzitik, euskal politikari buruzko balorazioak hobetzen jarraitzen du, pixkana-pixkana, eta berriro ere gehiago dira baikorrak (% 33) ezkorrak baino (% 18), bi taldeen arteko aldea 15 puntura arte handitzea eragin duten sei hilekoko aurrerakada eta atzerakada korrelatiboen ondoren. Gainerakoan, eszeptizismoak nagusi eta egonkor jarraitu du (% 47) azken urtean. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz berriro Espainiako egoera politikari buruz nagusi den ezkortasunean (% 86 eta % 76, hurrenez hurren), baita oraingoan ere euskal egoera politikari buruzko eszeptizismoan (% 43 eta % 50, hurrenez hurren) ---ikus 11. grafikoa---

EGONKORTU EGIN DA GIZARTE ETA POLITIKA TENTSIO GIROAREN BILAKAERA POSITIBOA

Egonkortu egin da gizarte asaldura txikitzen ari dela diotenen baikortasuna (% 70), aurreko urtean izan zuen gehikuntza nabarmenaren ondoren, eta bat datoz ia horretan abertzaleak (% 72) eta ez-abertzaleak (% 68). Hala eta guztiz ere, atzerakada paralelo bat izan ondoren, lautik bat baino gehiago dira oraindik (% 26) adierazten dutenak beren inguruan liskarra areagotzen ari dela alderdi politikoen arteko zatiketa eta etengabeko konfrontazioagatik (ikus 12. grafikoa).

URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK AZTERKETA GAINDITZEA LORTU DUTE, NAHIZ ETA DUELA URTEBETE BAINO ZAZPI HAMARREN GUTXIAGOREKIN

Urkulluk eta haren gobernuko kideek azterketa gainditzea lortu dute berriro euskal gizarteak eman dien batez besteko notarekin (5,1), nahiz eta behera egin duten 7 hamarren duela urtebeteko notarekin alderatuta, eta 2 hamarren, azken sei hilekoko

notarekin alderatuta. Beraz, eten egin da aurreko urteko bilakaera positiboa. Batez besteko kalifikazio hori gainditu egiten du PNV (6,5), PP (5,6), PSE-EE (5,5) eta C's (5,5) alderdien boto emaileen balorazioak. Aldiz, Elkarrekin Podemosen (4,5) eta EHBren (3,5) hautesleriak suspentsoaren alde daude. Bestetik, nabarmentzekoa da ez-abertzaleek (5,2) abertzaleek (4,9) baino nota hobea ematen dietela. Gainera, gehiago dira berriz jaurlaritzaren lana ontzat hartzen duten herritarrak (% 68) txartzat hartzen dutenak baino (% 30), atzerakada (-13 puntu) eta aurrerakada (+13 puntu) esanguratsuekin -hurrenez hurren- azken urtean (ikus 13. grafikoa).

GEHIENGOA ADOS DAGO HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO POLITIKAREKIN

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika baloratzeko eskatu diegu gure elkarrizketa-tuei, eta gehienek positiboki baloratu dute (% 60). Abertzaleak dira hobekien baloratu dutenak (% 72), eta neurri apalagoan, ez-abertzaleek (% 48). Balorazio positiboa ia hautesleria guztiak egin dute (abstentzioaren aldekoen % 45etik PNVren boto emaileen % 75era), PPren boto emaileek izan ezik (% 20). Gehiengo horren aurrean, bostetik bat baino gehiago dira (% 21) hizkuntza politikarekin ados ez daudenak, abertzaleak ez diren boto emaileen artean batez ere (% 28). Alderdika: PP (% 40), C's (% 38) eta sozialistak eta abstentzioaren aldekoak (% 29). Azkenik, ia bostenek (% 19) ez dute iritzirik gai honen inguruan (ikus 14. grafikoa).

EUSKAL GIZARTEA EUSKARAREN IKASKUNTZA ETA ERABILERA SUSTATUKO DITUEN HIZKUNTZA POLITIKA BATEN ALDE DAGO, INPOSIZIORIK ETA PRESARIK GABE, ETA MALGUTASUNEZ JOKATUZ SEKTORE PUBLIKOAN

Gai honi buruz galdetu genuenetik bost urte igaro direnean, gehiengo ia berbera (% 64) "euskaren ikaskuntza eta erabilera sustatzearen alde" dago, nahiz eta "inposiziorik eta presarik gabe". Iritzi horretakoak dira abertzaleak (% 55) eta ez-abertzaleak (% 73), eta hautesleria guztiak (PNV eta Elkarrekin Podemosen % 66tik C's-en % 88ra), EHBren boto emaileak izan ezik (% 40), askoz zatituagoa daudenak. Gehiengo horren aurrean, ia laurdenek (% 23) uste dute indartu egin behar direla "euskararen aldeko gaur egungo neurriak, elebitasuna ezarriz maila guztietan". Hori uste dute abertzaleen herenek, eta iritzi nagusia da EHBren hauteslerian (% 44). Muturreko aukerak % 5aren babesa bakarrik lortzen dute, hurrenez hurren: "neurri gogorra goak hartzea, ahalik eta eperik laburrenean Euskadin euskara bakarrik erabil dadin" edo "behartutako euskalduntzea gelditzea, Euskadin kultur pobretzea eta isolamendua besterik eragiten ez duena" (ikus 15. grafikoa).

Azkenik, administrazio publikoari dagokionez, bi eredu hauen artean aukeratzeko eskatu diegu elkarrizketa-tuei: 1) euskarazko hizkuntza gaitasun osoa eskatzea langile publiko guztiei; edo 2) euskara eskakizuna malgutasunez aplikatzea, lanpostuaren eta zerbitzu publikoa kokatuta dagoen zonaldearen errealitate soziolinguistikoaren arabera. Bi herenetik gora (% 69) malgutasunaren aldekoak dira, abertzaleen (% 53)

eta ez-abertzaleen (% 84) artean, eta ia hautesleria guztietan (PNVren % 70etik C's-en % 100era), EHBren salbuespenarekin (% 37). Aldiz, lehen aukerak jasotzen duen eskakizun unibertsala gutxiengo baten hautua da (% 29), baita abertzaleen artean ere (% 47), eta soilik EHBren hautesleriak (% 63) babesten du.

SOILIK PNK LORTU DU SALDO POSITIBOARI EUSTEA EUSKAL ALDERDIEI BURUZKO BALORAZIOAN, BERRIRO ERE ATZERA EGIN BADU ERE. ELKARREKIN PODEMOS DA ATZERA GEHIEN EGIN DUENA ETA BERE BOTO EMAILEEN BALORAZIO TXIKIENA LORTU DUENA


Euskal alderdiek azken hilabeteetan izan duten ibilbide politikoa baloratzeko eskatu diegu elkarriketatuei, eta soilik PNK lortu du saldo positiboa (+11 puntu eta -3 puntu) iritziz positiboan (% 34) eta negatiboan (% 23) artean. Beste alderdi politikoen saldoa negatiboa da. Txikienetik handienara: EHB: -11 puntu (+% 19 eta -% 30); Elkarrekin Podemos: -29 (+% 10 eta -% 39); PSE-EE: -43 (+% 7 eta -% 50); C's: -50 (+% 4 eta -% 54); PP: -66 (+% 2 eta -% 68). Bestetik, alderdien hauteslerien balorazio positiboak honako hauek dira, txikienetik handienara: Elkarrekin Podemos % 32 (atzera gehien egiten duena); PSE-EE % 44; C's eta PP % 50; EHB % 61; PNK % 71 (ikus 16. grafikoa).

DENBORA ASKOAN LEHEN ALDIZ, BURUZAGI POLITIKO BAKAR BATEK ERE EZ DU AZTERKETA GAINDITU


Buruzagi politikoen balorazioetan seihilekoan izan den atzerakada orokorraren erdian -1-7 hamarren arteko galerak-, aldaketa batzuk izan dira aurreko seihilekoetako ordenan, aldeak mantenduz batzuen eta besteen ezagutza mailen artean. Berritro, Urkullu lehendakaria dago lehen postuan: 4,7, hiru hamarren galduta eta % 97ko ezagutza mailarekin. Atzetik datoz: A. Rodriguez (4,4 eta % 23ko ezagutza maila), A. Ortuzar (4,2 eta % 72ko ezagutza maila), N. Alba (4, sei hamarren galduta eta % 31ko ezagutza maila), A. Garzon (3,8, bost hamarren galduta eta % 74ko ezagutza maila), A. Otegi (3,7 eta % 90eko ezagutza maila), P. Iglesias (3,5, bost hamarren galduta eta puntuazioen % 96), I. Mendia (3,3 eta % 72ko ezagutza maila) eta P. Sanchez (2,9, sei hamarren galduta eta puntuazioen % 96). Zerrendaren azken postuetan, zentro-eskuineko buruzagiak daude: S. Saenz de Santamaria (1,7, hiru hamarren galduta eta % 96ko ezagutza maila), A. Rivera (1,6, lau hamarren galduta eta puntuazioen % 93), A. Alonso (1,5, zazpi hamarren galduta eta % 71ko ezagutza maila) eta M. Rajoy (1,2, hamarren bat galduta eta ezagutza maila maximoa: % 98) --- ikus 17. grafikoa---

Azkenik, puntuazio hauek onarpen indizearekin osatzen baditugu (puntuatzean gutxienez aprobatu bat ematen dutenen %), Urkullu lehendakari da aurrena (% 57 eta -11 puntu azken urtean). Berritro ere, aprobatu gehien lortzen dituen bakarra da. Atzetik datoz: P. Iglesias (% 39 eta -18 puntu), A. Ortuzar (% 38), A. Otegi (% 36), A. Garzon (% 32), I. Mendia (% 24), P. Sanchez (% 23), S. Saenz de Santamaria eta N. Alba (% 15), A. Rivera (% 13), A. Rodriguez (% 12), A. Alonso (10) eta M. Rajoy (% 9). Azken urteko bilakaerari erreparatzen badiogu, atzerakada orokorra da (ikus 18. grafikoa).


10. Grafikoa: POLITIKAREKIKO SENTIMENDUAK




11. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA




12. Grafikoa: EUSKALDUNEN PERTZEPZIOA GIZARTE ASALDURAREN GORAKADAREN INGURUAN



13. Grafikoa: OIRAINGOKO KOALIZIO GOBERNUAREN KUDEAKETAREN NOTA



14. Grafikoa: EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO POLITIKAREN BALORAZIOA



15. Grafikoa: 15. Grafikoa: HIZKUNTZA POLITIKA ALTERNATIBOAK, OROKORRAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO

EHB= 44% (+2)
 PNV= 23% (-12)
 Podemos= 20% (-1)
 Abst.=12% (-11)
 PSE-EE= 10% (-2)


Aber.=33% (-7)
 Ez aber.= 12% (-3)

DERRIGORREZKO
 EUSKALDUNTZA
 GERATzea 5%
 (+1)

PP= 10% (=)

OROKORRA

NEURRIAK AREAGOTZEA,
 ELEBITASUNA MAILA
 GUZTIAZ BEHARTZEKO
 23% (-3)




ED/EE 3% (+1)

ERRADIKALTASUN HANDIAGOA,
 5% ELEBAKARTASUNA LORTZEKO
 (+1)

EHB= 13% (-1)

ADMINISTRAZIOA

EUSKARA LANPOSTU
 GUZTIAZ BEHARTZEKO
 29%



EHB= 63%
 PNV= 29%
 Podemos= 24%

Aber.=47%
 Ez aber.= 13%

Abst.= 77% (+11)
 PSE-EE= 75% (-6)
 PP= 70% (-12)
 Podemos= 66% (-9)
 PNV= 66% (+7)
 EHB= 40% (-3)

Aber.=55% (+5)
 Ez aber.= 73% (-2)

64%


EUSKAREN KASKUNTZA
 SUSTATZEA, PRESARIK ETA
 INPOSIZIOARIK GABE

PP= 90%
 PSE-EE= 90%
 Abst.= 81%
 Podemos= 75%
 PNV= 70%
 EHB= 37%

Aber.=53%
 Ez aber.= 84%


EUSKARA ESKATZEA,
 LANPOSTUAREN ETA
 ERREALITATE
 SOZIOLOGIUSTIKOAREN ARABERA

16. Grafikoa: AZKEN HILABETETAKO ALDERDI POLITIKOEN IBILBIDEAREN BALORAZIOA



17. Grafikoa. LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN


OSO EZAGUNAK



(%) Balorazioa ematen duten elkarrizketatuen ehunekoa

Euskobarómetroa 2017ko Urrria

18. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN





IV. Atala

Euskal gizarteak zatituta jarraitzen du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean, eta bi taldeak berdinduta daude hamarkaden ondoren.

Espainiar eta euskal identitateen arteko bateragarritasuna berresten dute, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

Autogobernurako lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

Gehiengo handi batek gustura jarraitzen du Estatuarekin.

Gernikako Estatuaren aldeko gehiengoaren babes esplizituak berdindu egin du lehen aldiz 1979ko erreferendumean lortutakoa.

Independentzia nahiak minoritarioa izaten jarraitzen du, ziurgabetasun etorkizun batean.

Euskal gizartea independentziari buruzko erreferenduma egitearen alde dago.

Balizko erreferendum batean, EZEZKOA BAIEZKOAri gailenduko litzaioke 17 puntuko aldeaz, eta are alde handiagoz independentziak EBtik irtetea eta Espainiako merkatua galtzea eragingo balu.

URTE LUZEZ ZATIKETA KRONIKO BATEAN EZ-ABERTZALEAK NAGUSI IZAN ONDOREN, BERDINDUTA DAUDE BI TALDEAK

Abertzaleen (% 48) eta ez-abertzaleen (% 48) arteko zatiketa kronikoari dagokionez, txikitu egin da bi taldeen arteko aldea eta berdinketara iritsi dira azken sei hilekoan: abertzaleek 9 puntu egin dute gora urtetik urtera; ez-abertzaleek 6 puntuko atzerakada korrelatiboa izan dute. Hautesleriei erreparatuta, Elkarrekin Podemosen boto emaileen % 68k ez-abertzaletzat dute beren burua, eta portzentaje hori % 100ekoa da C's, PP eta PSE-EE alderdien boto emaileen artean. Aldiz, sentimendu abertzalea nagusi da PNV (% 70) eta EHBren (% 87) boto emaileen artean (ikus 19. grafikoa).

EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNAK NAGUSI IZATEN JARRAITZEN DU, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan egonkortasun handi bat erakutsita, gehiengo batek -ia bostetik hiruk (% 58)- euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunari eusten dio. Bateragarritasun horren barnean, euskal-espainiar dualtasun orekatua da nagusi (% 32), eta horri jada ezaguna den euskaltasun sentimendua gehitu behar zaio (% 24), sentimendu espainolistaren (% 2) oso gaintetik dagoena. Bestetik, muturreko espainolismoak % 5ekoa izaten jarraitzen du, eta beren burua soilik euskalduntzat dutenak herena baino zertxobait gehiago dira (% 37) ---ikus 20. grafikoa---

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitate bateragarritasunari dagokionez, EHBren boto emaileen % 21aren eta C's-en boto emaileen % 88ren artean kokatzen da, eta tarte horretan daude PP (% 60), PNV (% 62), abstentzionistak (% 69), PSE-EE (% 72) eta Elkarrekin Podemos (% 73). Nolanahi ere, euskaltasuna argi nabarmentzen da abertzaleen eta Elkarrekin Podemosen boto emaileen artean, eta orekatuago, aldiz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen multzo nagusia EHBren hauteslerian dago (% 80), eta esanguratsua da ere PNVren boto emaileen artean (% 34), zatituago jarraitzen dutenak. Azkenik, espainiar sentimendua nagusi da sozialisten, C's-en boto emaileen eta, batez ere, alderdi popularraren boto emaileen artean.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurralde antolakuntzari dagokionez, urte arteko egonkortasun handiko testuinguru batean, euskal herritarrek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskal herritarren gehiengoak egungo formula autonomikoaren (% 36) eta balizko federalismo baten artean (% 32) kokatuta jarraitzen du. Gaur egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da oraindik sozialisten artean (% 56), eta neurri apalagoan, abstentzionisten (% 51) eta C's-en

boto emaileen (% 50) artean. Ehuneko garrantzitsuetara iristen da PNVren (% 35) Elkarrekin Podemosen (% 31) eta PPren (% 30) boto emaileen artean, eta, oro har, ez-abertzaleen taldean (% 49). Autogobernua bide federaletik garatzeko aukeraren aldekoak dira PNVren (% 42) eta Elkarrekin Podemosen (% 49) boto emaileak, eta, maila apalagoan, sozialistak (% 38) eta abstentzionistak (% 26). Aukera honek babes berdintsua du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (herena gutxi gorabehera). Nolanahi ere, bi formula integratzaile horien baturak gehiago argia izaten jarraitzen du (% 68), hiru herritarretatik bi horien alde baitaude (ikus 21. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integratzaile horien aurrean, independentismoak –formula autodeterministaren edo konfederalaren bidez– herritarren laurdenaren (% 24) babesa izaten jarraitzen du, 4 puntu galdu baditu ere azken sei hilekoan. Aukera hau EHBren boto emaileen zati handi batek babesten du (% 70), eta abertzaleen taldearen ehuneko garrantzitsu batek (% 44), gutxiengo bada ere PNVren (% 15) eta Elkarrekin Podemosen (% 16) boto emaileen artean. Beste muturrean, zentralismoak euskaldunen % 4aren babesa du, gehienak alderdi popularraren boto emaileak.

GEHIENGO HANDI BATEK NAHIKO GUSTURA JARRAITZEN DU ESTATUTUAREKIN, ETA AREAGOTU EGIN DAITEKEEN AUTOGOBERNURAKO TRESNA IZATEN JARRAITZEN DU GEHIENGOAREN USTEZ

Euskal herritarren gehiengo kualifikatu batek –hiru laurdenek baino gehiagok– (% 77) nahiko gustura jarraitzen du Estatutuarekin. Aldiz, gogobetetzen ez dituenak bostetik bat dira gutxi gorabehera (% 18), eta egonkortasun erlatibo bat dago talde honetan azken urtean. Hala ere, Estatutuak gogobetetzen dituenen artean, nolabaiteko jarrera kritikoa (% 36) eta baikortasuna (% 41) suma daitezke. Bigarrenek aurrera egin dute azken urtean. Abertzaleak dira nagusiki jarrera kritikoa dutenak (% 39); aldiz, ez-abertzaleak dira erabat eroso daudenak (% 51). Hautesleriei erreparatuta, EHBren boto emaileak dira jarrera kritikoa dutenak (% 40), eta, neurri txikiagoan, Elkarrekin Podemosen (% 38) eta PNVren (% 34) boto emaileak. EHBren hautesleria da Estatutuak gutxien gogobetetzen duena (% 47); gehien gogobetetzen dituenak, aldiz, PSE-EEren (% 60), PPren (% 50) eta C's-en (% 50) hautesleriak dira, eta neurri apalagoan, PNV (% 49), Elkarrekin Podemos (% 46) eta abstentzionistak (% 46) ---ikus 22. grafikoa---

Estatutuarekiko deserosotasun erlatiboari eta gaitzespenari, ñabardura handiak egin behar zaizkie berriro herritarrei galdetzen zaienean zein diren egungo autogobernu estatusaren alternatibak. Gutxi gorabehera lautik batek ez du aldaketarik nahi (% 27), beste horrenbestek ia falta diren eskumenak transferitzea eskatzen du (% 25), eta pitin bat gehiago dira autogobernuan sakontzearen alde daudenak (% 27); aldiz, gutxiengo txikia izaten jarraitzen dute (% 16) hausturaren eta prozesu subiranistaren alde garbiki dauden herritarrek (kopuru honek ia ez du aldaketarik izan azken urtean). Lehenengo bi aukeren barnean, abstentzionistak eta C's, PP, PSE-EE,

PNV eta Elkarrekin Podemosen boto emaile gehienak sar daitezke, ñabardurak ñabardura (autogobernuan sakontzea nahi lukete batik bat PNV eta Elkarrekin Podemosen boto emaileek); aldiz, EHBk, ia bakarka, aukera subiranistaren alde jarraitzen du (% 58).

GERNIKAKO ESTATUTUAREN ALDEKO GEHIENGOAREN BABES ESPLIZITUAK BERDINDU EGIN DU LEHEN ALDIZ 1979KO ERREFERENDUMEAN LORTUTAKOA

38 urte igaro direnean Gernikako Estatuaren onarpena berresteko erreferenduma egin zenetik, gaur erreferenduma berriro egingo balitz, baiezkoak (% 53) gehiengo lortu eta berdindu egingo luke 1979an lortutako emaitza (% 53), azken hiru urteetan etenik gabeko gorakada izan ondoren (+23 puntu). Aldeko iritzi hau ia berdin suma daiteke abertzaleen (% 55) eta ez-abertzaleen (% 50) artean. Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoak (% 3) gora egiten jarraituko luke (% 10 eta -10 puntuko urte arteko atzerakada), orduko abstentzionismoaren kontura (1979an abstentzioa % 41ekoa izan zen). Zatiketa hautesleria guztietan ikus badaiteke ere, denetan da garaile BAIEZKOA, baita lehen aldiz EHBren hauteslerian ere (% 39). Azken horretan -zati-tuen dagoena-, gero eta babes txikiagoa du EZEZKOAk (% 28) ---ikus 23. grafikoa---

INDEPENDENTZIA NAHIAK MINORITARIOA IZATEN JARRAITZEN DU, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN

Euskal autogobernuaren formula politikoa gorabehera, herritarren herenek gutxi gorabehera (% 30) independentzia lortzeko gogo handia dutela adierazi dute, urte arteko egonkortasun handi batekin. Hori adierazi dute EHBren boto emaile gehienek (% 84) eta abertzale gehienek (% 51), eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileek (% 25). Iritzi horren aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 59) adierazi du ez duela independentziarik nahi (% 44) edo horretarako gogo handirik ez duela (% 15), eta iritzi horretakoak dira batez ere ez-abertzaleak (% 79) eta alderdi autonomisten boto emaileak (hamarretik bederatzai baino gehiago), baita PNVren (% 66) eta Elkarrekin Podemosen (% 72) boto emaile eta abstentzionista (% 68) gehienak ere (ikus 24. grafikoa).

Euskadi independente baten hipotesian, alde handiak suma daitezke bizi baldintzen bilakaerari buruz euskal gizarteak dituen igurikapenetan: alde batean, hobeto biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 23); bestean, guztiz kontrakoa pentsatu eta okerre-
ra egingo genukeela adierazten dutenak (% 42), +12 puntuko aurrerakadarekin azken urtean. Ia laurdenean diote gauzak ez liratekeela aldatuko (% 13), eta beste talde batek ez daki zehazki zer erantzun (% 22); azken horiek dira ikuspegi ezkorrenaren alde egin dutenak. Baikorrenak EHBren boto emaileak dira berriro (% 61), eta, oro har, abertzaleak (% 42). Azkenik, ezkorrenak dira popularrak (% 80), sozialistak (% 79), C's-en boto emaileak (% 88) eta, oro har, ez-abertzaleak (% 61), baina baita ere abstentzionistak (% 47) eta Elkarrekin Podemosen (% 49) eta PNVren (% 42) boto emaileak.

EUSKAL GIZARTEA INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUMA EGITEAREN ALDE DAGO


Azken urteotan, alderdi abertzaleek eta ezkerreko alderdi politiko berriek “erabakitzeko eskubidearen” gaia planteatu dute, eta eskubide hori lurralde jakin baten balizko independentziari buruzko erreferendum baten bidez gauzatuko litzateke. Adibidez, Katalunian. Alde horretatik, urtebete igaro ondoren, berriro galdetu diegu gure elkarrizketatuei ea ados dauden Euskadi Espainiatik banatzeko aukerari buruzko erreferenduma egitearekin, eta jaso dugun erantzuna 2014an eta 2016an jasotakoaren antzekoa izan da: hau da, gehiago dira alde daudenak (% 58) kontra daudenak (% 33) baino, eta % 9k ez dute iritzirik eman nahi izan. Aldekoak nagusi dira abertzaleen (% 79) eta haien boto emaleen artean (PNVren boto emaleen % 62 eta EHBren boto emaleen % 92, gehi Elkarrekin Podemosen boto emaleen hiru bosten gutxi gorabehera eta abstentzionisten ia erdiak). Aldiz, ados ez daudenak nagusi dira alderdi autonomistetan (C's-en boto emaleen % 63aren eta popularren % 90aren artean), eta ez-abertzaleak, oro har, oso zatituta daude gai honetan: alde (% 39) eta kontra (% 51) --- ikus 25. grafikoa---

BALIZKO ERREFERENDUM BATEAN, EZEZKOA BAIEZKOARI GAILENDUKO LITZAIROKE 17 PUNTUKO ALDEAZ


Era berean, berriro ere galdetu diegu gure elkarrizketatuei ea zer egingo luketen bihar bertan Euskadiren independentziari buruzko erreferendum bat egingo balitz. Iritzi oso desberdinak bildu ditugu, eta iritzi horien bilakaera nabarmen bat hautesman ere bai. EZEZKOA, une honetan garbiki askoz mobilizatuagoa dagoena, % 47ra iristen da, 8 puntu gora egin ondoren azken urtean (+13 puntu azken hiru urteetan); aldiz, BAIEZKOAk atzera egiten du (-5 puntu azken hiru urteetan) eta euskal gizartearen herenaren azpitik gelditzen da (% 30). Beraz, duela hiru urteko berdinketa teknikoa ezezkoaren aldeko 17 puntuko aldea bihurtu da gaur egun. Gainera, % 8k diote abstenitu egingo lirakekeela eta % 15 ez daude ezein aukeraren alde. Abertzaleek eta ez-abertzaleek jarrera argiak dituzte: alde (% 52) eta kontra (% 67), hurrenez hurren. Baita hautesleriek ere: EHBren boto emaleen % 83 eta, neurri apalagoan, PNVren boto emaleen % 24, baizkoaren alde daude; eta PNVren beraren % 49 eta PPren eta C's-en % 100 artean, ezezkoaren alde, tartean Elkarrekin Podemos (% 64), PSE-EE (% 88) eta abstentzionistak (% 46) egonik (ikus 26. grafikoa).

Independentziaren aldekoek galdetu diegu ea zer neurritaraino eutsiko lioketen baiezkoari baldin eta horrek EBtik irtetea eta Espainiako merkatuan atzera egingo eragingo balu. Bi kasuetan, baiezkoa % 26ra eta % 25era murriztuko litzateke, hurrenez hurren, eta % 1 edo % 2 ezezkora igaroko lirakeke. Aldiz, % 4 zalantzan egongo lirakeke bi kasuetan, eta horrek ia berdinean eragingo luke EHBren eta PNVren hauteslerietan, nahiz eta era desberdinean kasu batean (EBtik irtetea) nahiz bestean (Espainiako merkatuan atzera egingea).


19. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA




20. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




21. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



22. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUAREKIKO GOGOBETASUNA ETA EGUNGO EGOERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




23. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1979 ETA 2017 ARTEAN*



* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2017ko Maiatza)

24. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN

INDEPENDENTZIA NAHIAK



EHB= 84% (=)
PNV= 25% (+3)
Aber.= 51% (-1)


PNV= 22% (-11)
Podemos=19% (-13)
Abst.= 11% (-11)

Aber.= 19% (-4)
Ez aber.= 12% (-7)

Aber.=21% (+3)
Ez aber.= 67% (+8)

PP= 90% (=)
PSE-EE= 85% (+7)
Abst.= 57% (+12)
Podemos=53% (+17)
PNV= 44% (+8)

BIZI ITXAROPENAK




Aber.= 42% (+8)
Ez aber.= 6% (-2)

EHB= 61% (-14)
PNV= 18% (-11)


Aber.= 23% (+4)
Ez aber.= 61% (+10)

PP= 80% (-20)
PSE-EE=79% (-4)
Podemos=49% (+21)

25. Grafikoa: EUSKADIN INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDIUM BAT EGITEAREKIKO ADOSTASUN MAILA



26. Grafikoa: BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINGO BALITZ, ETA BAIEZKO BOTOARI EUSTEKO BALDINTZAK





U. Atala

Suspentso biribila Kataluniako eta estatuko erakundeei kataluniar krisian izan duten jokaeragatik.

Uteko erreferendumak eta Alde Bakarreko Independentzia Deklarazioak baliorik ez.

Gehiengo handi batentzako irtenbide egokiena: autogobernuaren erreforma eta legezko erreferenduma.

Kataluniako prozesua Euskadin eredu hartzeari ez.

SUSPENTSO BIRIBILA KATALUNIAKO ETA ESTATUKO ERAKUNDEEI KATALUNIAR KRISIAN IZAN DUTEN JOKAERAGATIK

Kontuan izanik Kataluniako krisiak euskal politikan duen eragin argia, elkarrizketatuei eskatu diegu baloratzeko nola jokatu duten Kataluniako eta Estatuko erakundeek, 0-10 eskala batean (oso gaizki eta oso ondo). Emaidza suspentso biribila izan da bi aldeentzat: 3,1eko nota Kataluniako erakundeentzat eta 1,9koa, Estatukoentzat, eta % 33ko eta % 18ko onespren indizeak hurrenez hurren (3tik azpiko nota lehenengoentzat eta 0 bigarrenentzat, % 52ko gehiengo argi baten arabera). Kataluniako erakundeen kasuan, soilik EHBk babesten ditu (6,2), eta beste hautesleria guztien ustez suspentsoa merezi dute (PNVren hautesleriaren 2,8 nota barne). Abertzaleen nota 4,6koa da, oro har. Aldiz, Estatuko erakundeek PPre babesa bakarrik dute (7,1) ---ikus 27. grafikoa---

UIEKO ERREFERENDUMAK ETA ALDE BAKARREKO INDEPENDENTZIA DEKLARAZIOAK BALIORIK EZ

Gehiengo handi batentzat (% 81), bost herritarretatik laurentzat, Kataluniako erakundeek planteatu zuten urriaren 1eko erreferendumak ez zuten baldintzarik bete legezkatzat eta baliozkotzat hartua izateko. Bat datoz horretan abertzaleak (% 67) eta ez-abertzaleak (% 93), eta hautesleria guztiak (EHBren % 50etik popularren eta sozialisten % 100era). Gehiengo horren aurrean, soilik % 15ek uste dute baliozkotzat hartu behar dela, abertzaleen (% 28) eta EHBren boto emaileen (% 45) artean (ikus 28. grafikoa).

Gainera, elkarrizketatuei galdetu diegu ere zer neurritaraino dauden ados Kataluniako erakundeek onartu duten Alde Bakarreko Independentzia Deklarazioarekin, eta arbuioa izan da ere gehienen erantzuna, ia bi heren (% 64), lautik batek adierazi duen babesaren aurrean (% 27). Lehenengo jarrerak ez-abertzaleak barne hartzen ditu (% 83); aldiz, abertzaleak zatituta daude, alde daudenen (% 46) eta aurka daudenen (% 44) artean. Hautesleriei erreparatuta, EHBren hautesleriak alde bakarreko deklarazioa babesten du (% 69); aldiz, gainerako guztiak kontra daude (Elkarrekin Podemosen % 67tik popularren % 100era).

GEHIENGO HANDI BATENTZAKO IRTENBIDE EGOKIENA: AUTOGOBERNUAREN ERREFORMA ETA LEGEZKO ERREFERENDUMA

Elkarrizketatuei galdetu diegu ere ados dauden Kataluniaren eta Espainiaren arteko auzia konpontzeko modu honekin: hau da, egin beharreko lege erreformak egitea,


behar adina denboraz eta legez ezarritako prozedurak erabiliz, hitzartutako erreferendum bat egiteko Kataluniako independentziari buruz, kataluniarrek erabaki dezaten Espainian jarraitu nahi duten ala ez, egungo autogobernua erreformatzeko proposamen negoziatu baten ondoren. Ia lau herritarretatik hiru irtenbide horren alde daude (% 72), abertzale (% 84) nahiz ez-abertzale (% 60), eta hautesleria guztietan (sozialisten % 48tik EHBren % 92ra), popularren salbuespenarekin (% 30). Aukera horren kontra dago bostetik bat gutxi gorabehera (% 18), PPren boto emaileen artean batik bat (% 70), baita neurri txikiagoan ere sozialisten artean (% 42), askoz zatituago daudenak (ikus 29. grafikoa).

KATALUNIako PROZESUA EUSKADIN EREDU HARTZEARI EZ


Azkenik, galdetu diegu ere zer neurritaraino dauden ados Euskadin Kataluniako mugimendu independentistak eginikoaren antzeko prozesu bat martxan jartzearekin, eta hirutik bi aurka agertu dira (% 66), bai abertzaleen (% 53) bai ez-abertzaleen (% 80) artean, ia hautesleria guztietan (Elkarrekin Podemosen % 69tik popularren % 100era), EHBren salbuespenarekin (% 28). Lautik bat ados dago (% 25), batez ere EHBren boto emaileen artean (% 61), eta, neurri apalagoan, abertzaleen artean (% 39), askoz zatituago daudenak gai honetan (ikus 30. grafikoa).

27. Grafikoa: KATALUNIAKO KRISIAN KATALUNIAKO ERAKUNDEEN ETA ESPAINIAKO GOBERNUAREN KUDEAKETA KALIFIKATZEA

KATALUNIAKO ERAKUNDEAK




ESPAINIAKO GOBERNUA



ERREFERENDUMAREN BALIOA

EHB= 45%




PP=100%
PSE-EE= 100%
Podemos=89%
PNV=85%
EHB=50%

Aber. = 67%
Ez aber. = 93%

DUI-REKIKO ADOSTASUNA

EHB= 69%


Aber. = 46%
Ez aber. = 9%




Aber. = 44%
Ez aber. = 83%

PP=100%
PSE-EE= 96%
Podemos=78%
PNV=67%

29. Grafikoa: KATALUNIAKO LEGEZKO ERREFERENDUM HITZARTU BAT EGITEAREKIKO ADOSTASUN MAILA



30. Grafikoa: EUSKADIN KATALUNIAN BEZALAKO PROZESU BAT ABIATZAREKIKO ADOSTASUN MAILA



Aber.= 39%
Ez aber.= 12%

EHB= 61%
Podemos=23%
Abst.= 21%
PNV= 15%

Aber.= 53%
Ez aber.= 80%

PP= 100%
PSE-EE= 94%
PNV= 75%
Podemos=69%



VI. Atala

Euskal gizarteak ETA Euskadirentzat negatiboa izan dela berretsi du.

Nagusi izaten jarraitzen dute kalifikatzaile negatiboek ETako kideentzat.

Euskal gizarteak bere jarrera bigundu du berriz terrorismo delituak dituzten presoak barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

EUSKAL GIZARTEAK ETA ERAKUNDEA EUSKADIRENTZAT NEGATIBOIA IZAN DELA BERRETSI DU

Hiru urteren ondoren, euskal gizartearen gehiengoak (% 76) berretsia egiten du ETAr buruz duen balorazioa eta Euskadirentzat oso negatibotzat edo nahiko negatibotzat hartzen du, azken hiru urteetan 9 puntu atzera egin ondoren. Iritzi nagusia da lurralde guztietan, abertzaleen (% 61) eta ez-abertzale artean (% 90), eta hautesleria guztietan (EHBren % 40tik PPre % 100era). Zeharkako gehiengo horren aurrean, ez dira hamarretik batera heltzen (% 7) positiboki baloratzen dutenak, abertzaleen (% 13) eta EHBren (% 17) artean batez ere. Azkenik, axolagabetasuna eta iritzirik eza % 15era heltzen dira (ikus 31. grafikoa).

NAGUSI IZATEN JARRAITZEN DUTE KALIFIKATZAILE NEGATIBOEK ETAKO KIDEENTZAT

Hamarkada baten ondoren, berriro galdetu dugu ETako kideen kalifikazioari buruz. Gaur egun, duela hamarkada bat bezala, herritar gehienek uste dute “terroristak” (% 52), “hiltzaileak” (% 6) eta “fanatikoak” (% 15) direla, eta bat datoz horretan ia hautesleria guztiak: abstentzionisten % 52tik sozialisten % 8ra. Hala ere, duela hamar urte ez bezala, kalifikazio hori ez du abertzaleen (% 35) eta ez-abertzaleen (% 69) gehiengoak partekatzen, eta atzera egin du 9 puntu bi taldeetan (ikus 32. grafikoa).


Aldiz, “abertzaleak” kalifikazioa (% 10) 6 puntu igo da, eta “oker jokatu duten idealistak”, aldiz, % 28ra iritsi da, 9 puntu igo ondoren. Kalifikatzaile positibo edo adeitsu hauek nagusi dira abertzaleen (% 55) eta, batez ere, EHBren boto emaileen (% 69) artean.

EUSKAL GIZARTEAK BERE JARRERA BIGUNDU DU BERRIZ TERRORISMO DELITUAK DITUZTEN PRESOK BARKATZEARI ETA GIZARTERATZEARI DAGOKIENEZ


Azken sei hilekoan gertatu den joera aldaketa esanguratsu baten ondoren, handituz doan gizartearen gutxiengo bat (% 45 eta +10 puntu azken sei hilekoan) gizarteratze neurriak eskaintzearen alde dago damua erakutsi eta armak uzteko erabakia adierazten duten terrorista guztiei. Ia lautik batek (% 23) uste du neurri horiek soilik erabil daitezkeela hilketak deliturik ez dituzten presoekin, eta ia beste horrenbeste (% 25 eta -8 puntu azken sei hilabeteetan) ez dago prest barkatzeko eta uste du bai batzuek bai besteek zigorra osorik bete behar dutela (ikus 33. grafikoa).

Abertzaleen gehiengoa (% 61) baldintzarik gabe barkatzearen alde dago; aldiz, ez-abertzaleek zatituta jarraitzen dute gai honen inguruan, nahiz eta zigorrak osorik betetzearen aldeko jarrera den oraingoz nagusi (% 36). Soilik EHBren boto emaileak (% 74) daude argi eta garbi baldintzarik gabeko barkamenaren alde; neurri askoz apalagoan eta askoz zatituago, PNVren (% 42) eta Elkarrekin Podemosen (% 45) boto emaileak. PPre hautesleria zigorrak osorik betetzearen alde dago (% 88), baita PSE-EErena eta C's-ena ere (% 50).


31. Grafikoa: ETAREN AZKEN 40 URTEKO IBILBIDEAREN GAINEKO BALORAZIOA



32. Grafikoa: ETAKO AKTIBISTEN IRUDIA EUSKADIN



33. Grafikoa: TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOEN GIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA



A series of horizontal dashed lines for writing.